

**Prensa oharra**

**Larrialdiko kanpaina**

## **EROSKI-K KANPAINA BAT AKTIBATU DU DANAREN KALTEAK JASAN DITUZTENEI LAGUNTZEKO**

- **Kontsumitzaileei elkartasuna erakusteko deia egin die, ordainlekuetik pasatzean borondatea emanaz herritarren oinarrizko beharrak estaltzen lagundu dezaten**
- **EROSKIk ere, bildutakoa osatzeko, bere ekarpena egingo du**
- **EROSKIk eta bezeroek emandako guztia Gurutze Gorriak bideratuko die kalte-dun suertatu diren herritarrei**

**Elorrio, 2024ko urriaren 31.** - [EROSKI](#)k larrialdiko elkartasun kanpaina aktibatu du, DANAREN ondorio suntsigarriak jasan dituztenen autonomia erkidegoetan laguntza emateko. Nahi duenak borondatezko dohaintza egin dezake ordainlekuetan, EROSKIren edozein saltokitan, nahi duen kopurua emanda.

Eurite handi horiek direla eta, jende asko hil eta desagertu da, eta ez dago kalte materialak kalkulatzetik, mende honetan izan den tanta hotzik larrienean. Familia eta pertsona askok laguntza behar dute.

Aurreko elkartasun kanpainetan bezala, kontsumitzaileen dohaintzari esker dendetan bildutakoaz gain, EROSKIk ekarpen bat egingo du. Dohaintzan emandako guztia [Gurutze Gorriak](#) bideratuko die kalte-dun suertatu diren herritarrei.

EROSKIk eta bezeroek eta EROSKI Fundazioak milioi erdi eurotik gorako dohaintzak egin dituzte, hondamendi naturalengatik eta kausa humanitarioengatik kalte-tu direnei laguntzeko aktibatu diren azken elkartasun kanpainetan; besteak beste, Haitirako (2010 eta 2016), Lorca - Murtziarako (2011), Filipinetarako (2013), Nepalarako (2015), Siriarako (2015), Mallorcarako (2018), Palmarako (2020), Ukrainako krisirako (2022), Turkiako eta Siriako lurrikarak jasan zituztenentzat (2023) eta Marokoko eta Libiako uholdeak jasan zituztenentzako kanpainetarako.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 944 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

**Online prentsa aretoa**